



Okupazio Zerbitzua



Lantegi Batuak

Ehuneko ehun gai

Cien por cien capaces

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral



Ongi etorria ematen dizugu:



Lantegi Batuak

Lehen egunetik Lantegi Batuak-en gustura egotea eta lanean hastea errazago izatea nahi dugu.

Horregatik, lan zentroan harrera ematean Lantegi Batuak hobeto ezagutzeko lehen informazio praktikoa emango dizugu: enpresa, helburuak, jarduerak, antolaketa...

Zalantzaren bat badaukazu eta galdetu nahi baduzu joango zaren zentro berean egin dezakezu.

Okupazio Zerbitzuko gidaliburua

AURKIBIDEA

5 Nor gara?

6 Zer eskaintzen dugu?

7 Non gaude?

8 Lantegi Batuak-en lan egiten duten pertsonak

9 Zerbitzu okupazionala: lan-saria

Pertsona jasotzaileen eskubideen eta betebeharren gutuna eta zerbitzuen zorroa

10 Lantegi Batuak-eko Zerbitzu Okupazionala

11 Zer da?

12 Sarrera: onarpena, harrera eta probaldia

14 Zerbitzuan bertan: programak

18 Zerbitzutik ateratzea: bajarako arrazoiak

19 Zure eskubideak

23 Zure eginbeharrak

A Nor gara?

B Zer eskaintzen dugu?



Lantegi Batuak
Ehuneko ehun gai Cien por cien capaces

E Zerbitzu Okupazionala: Lan-Saria

C Non gaude?

D Lantegi Batuak-en lan egiten duten pertsonak

A

Nor gara?

Lantegi Batuak irabazi asmorik gabeko erakunde bat da eta ez du bere onurarako lan egiten.

Gaitasun anitzeko pertsonentzat egokitutako lan-aukerak sortzen ditu.

Batez ere, adimen urritasuna dutenak eta Bizkaikoak direnak.

Gure helburu nagusia lanaren bidez

zu bezalako pertsonak gizarteratzea


eta bere garapen profesional eta bizi-kalitate handiena lortzea da.

Horretarako, ekimen iraunkorrak eta lehiakorrak kudeatzen ditugu

eta gaitasun-anitzeko pertsoneri ibilbide ezberdinak eskaintzen dizkiegu,

lan arloan sartu eta ibilbide honen hasieratik bukaera arte

zerbitzu ezberdinak eduki ahal izateko.



B

Zer eskaintzen dugu?

• **Petsonei:**

- Lanean hasi aurreko orientazioa eta prestakuntza
- Zerbitzu okupazionala
- Enplegu zentro berezia
- Lan arruntera aldateta



• **Bezeroari:**

Industria arloa

- Mekanizazioa eta muntaia
- Elektronika eta kableatzea
- Muntaia elektrikoak
- Produkzioa eta logistika

Zerbitzuak

- Ingurumen zerbitzuak: Lorazaintza eta garbiketa
- Zerbitzu integratuak: Ostalaritza, aterpea...
- Publizitate zuzena eta dokumentuen kudeaketa



● Bizkaia



D

Lantegi Batuak-en lan egiten duten pertsonak

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK

ZERBITZU OKUPAZIONALA (ZO)

Prestakuntza eta lanaren bitartez pertsonaren garapen pertsonal eta sozialean laguntzen duen foru erantzukizuneko gizarte zerbitzua.

LANERAKO ZENTRO BEREZIA (LZB)

Pertsonara egokitua dagoen ordaindutako lana ziurtatzen du. Lan arruntean integratzeko bidea den lana.

Merkatu arrunterako produkzio lanak egiten ditu.

DESGAITASUN GABEKOAK



-rekin duen Lan Harremana

Ez dago lan kontraturik

Araudia

- 12/2008 Legea
- 185/2015 Eusko Jaurlaritzako Dekretua

LZB-arentzako lan kontratua dago

Araudia

- 1/2013 Legegintza-ko errege Dekretua
- 2273/1985 Dekretua
- 1368/1985 eta 427/1999 Errege Dekretuak
- Lan-arloko legeria
- Enpresako hitzarmen kolektiboa

Lan kontratu arrunta

Araudia

- Lan-arloko legeria
- Enpresako hitzarmen kolektiboa

Zerbitzu Okupazionala: Lan-saria

Zer da?

Lan-saria Lantegi Batuak Fundazioaren Zerbitzu Okupazionalako erabiltzaile diren pertsonak jasotzen duten diru kopurua da.

Lantegi Batuak-ek merkatuan eskaintzen dituen

produktu eta zerbitzuen produkzioan parte-hartzeagatik.

Lan-saria eman daiteke Lantegi Batuak-ek gaur egun jasotzen dituen diru-laguntzak jasotzen jarraitzen badu.

Zein gastu ordaintzen ditu?

Gutxienez janari* eta garraioarekin zerikusia duten gastuak ordaintzeko kopurua da. Diru kopurua pertsona bakoitzak lortzen duen mailaren arabera aldatu daiteke.

Zenbat jasotzen da?

Pertsona bakoitzak maila bat du, zereginera egokitzapen metodoaren arabera. Mailaren arabera lan-sari handiago edo txikiagoa jasotzen da.

Lan-sariari pizgarriak gehitu daitezke

(pertonaren ikasketa, jarrera, arretagatik...)

Maila	Lan-saria	Pizgarria	GUZTIRA
1	100 €		100 €
		8 €	108 €
2	130 €		130 €
		10 €	140 €
		20 €	150 €
3	160 €		160 €
		15 €	175 €
		25 €	185 €
EGOKIPLAN	108 €		108 €

*Jangelako eguneroko gastua: 3,03 euro.

1

Zer da?

- Helburuak
- Erabiltzaileak

2

Nola funtzionatzen du?

- Sarrera
- Zerbitzuan bertan
- Zerbitzutik ateratzea

Pertsona jasotzaileen eskubideen eta betebeharren gutuna.

Zerbitzu Okupazionala

3

Zure Eskubideak

- Duintasuna
- Pribatutasun eta konfidentzialtasuna
- Autonomia
- Informazioa
- Laguntzak
- Partaidetza eta eskubideak

4

Zure Eginbeharrak

- Programaren baldintzak
- Osasuna eta segurtasuna
- Beste pertsonen duintasuna
- Ordezkeri diren pertsonentzat
- Baliabideen erabilera egokia

1

Zer da?

Lantegi Batuak-eko Zerbitzu Okupazionala

Lanaren bitartez, **pertsonaren garapen pertsonal eta inklusio sozialari** laguntzen dion Bizkaiko Foru Aldundiaren gizarte zerbitzua da.

Horretarako, lanean trebatzeko

programak eta beharrezko laguntzak eskaintzen ditu. Erabiltzaileari lan mundura egokitu eta sartzeko bere trebetasunetan hobetzen joatea, eta **autonomia** eta **bizi-kalitate handiagoa** izatea baimentzen diote.

Eusko Jaurlaritzako **12/2008** Legea eta **155/2001** eta **185/2015** dekretuetan arautua dago.

Zerbitzu Okupazionala Bizkaiko Foru Aldundiarekin hitzartua dago eta 18 urtetik gorako pertsoneri zuzenduta dago:

- **adimen urritasuna** edo
- **hartutako kalte-zerebrala**
(Bizkaiko Foru Aldundiko Bekoetxe Zentrotik etorritakoak)
- **ezgaitasun egiaztagiria**
- **Bizkaian** erroldatuta
- Zerbitzu Okupazionalerako **autonomia funtzional eta manipulazio ahalmen maila** egokia
- Zerbitzu Okupazionalaren funtzionamendua eragozten dituzten **osasun edo jokaera arazoak** ez egotea



2

Nola funtzionatzen du?

SARRERA



— Onarpena

Zuri eta zure familiarteko edo laguntzaileari zerbitzua **nola den eta dauden programei** buruz informazioa ematen dizute.

Zure egoerari buruz **lehen balorazioa** ere egiten dizute (funtzionala, familiarra, larrialdi soziala...) eta honi buruz informazio emango dizute.

Zerbitzuan onartzen zaituzte: berehalakoa izan daiteke, **itxarote-zerrendan** sar zaitetzke edo beste zerbitzu batzuetara bidali zaitzakete.



— Harrera

Sartze data onartu eta jakinarazi ondoren egiten da.

Dagokizun tokiari buruz informatzen zaituzte: zentroa edo zerbitzua, egutegia, ordutegia, etab.

Zerbitzura edo zentrora joateko **hitzarmena sinatzen da**, 6 hilabeteko probaldi baterako. Eskaera eta autorizazioei buruz informatzen eta sinatzen da. Lehenengo egunean, zentroan edo zerbitzuan lekua ezagutzera **lagunduko zaituzte**, eskaintzen dituen zerbitzuak, begiraleak, lagunak ...

Zerbitzuan ondo sar zaitezen, prozesu honetan laguntzen zaituzte.

2

Nola funtzionatzen du?



Probaldia

3 hilabetera, lehen balorazio bat egingo da.

6 hilabetera, tokia behin betirako bada banakako laguntza plana (BLP) egingo da.

Tokia behin betirako izango da hurrengo kasuetan:

- Profesional-taldeak pertsona horren zerbitzura sartzea arriskurik ez duela eta positibo dela balioetsi duenean.
- Erabiltzailea eta ordezkariak informatuta eta ados daudenean.

Probaldia luzatzeko aukera dago



2

Nola funtzionatzen du?

ZERBITZUAN BERTAN

Hasierako informazio, ebaluazio eta orientazioaren ondoren, Zerbitzu

Okupazionalak erabiltzaileari programa desberdinak eskaintzen dizkio.

Programa eta zerbitzu hauek erabiltzaileari beti eskaintzen zaizkio

bere laguntzaren eta bere egoera pertsonal eta sozialaren beharren arabera.

PROGRAMA	EKINTZA OROKORRAK	EKINTZA ZEHATZAK
Lanbide ikastaroetara sarbidea	Zeregin sozio-laboraleta-rako lanbide ikastaroetara sarbidea.	Egokitutako ikastaroak.
Lanbide eta Enplegurako Orientazio Euskal Zerbitzura sarbidea	Laguntza, aholkularitza eta lagun-taldea.	Laguntza, aholkularitza eta lagun-taldea, ekintza zehatzak.
Trebakuntza zentroekin adostutako txandakako praktikak	Zentro desberdinetako ikasleentzako txandakako praktikak.	Egokitutako praktiken programazioa. Hezkuntza zentroen arduradunekin koordinazioa.
Neurrira egindako laguntza plana	Normalizatutako lanbide baten antzeko zereginak egitea. Pertsonaren eta zereginera egokitzearen ebaluazio jarraitua. Autonomia, erlazio pertsonal, osasun eta ongizate trebetasunak garatzeko laguntza. Trebetasun sozial eta pertsonalak hobetzeko taldeko ekintzak.	Zeregina betetzeko banakako trebakuntza eta Lanean eta pertsonekin integrazioa hobetzeko taldeko trebakuntza, parte-hartzetik eta gaurko teknologietatik abiatuta. Zerbitzuan integratzeko zailtasun edo arriskua duten kasuetan esku-hartzea. Tokiko gizarte zerbitzuekin esku-hartze hobe baterako koordinazioa.

Gizartean egindako ekintza inklusiboak.

Pertsonak zereginetara egokitzeko aurre hartze, jardute eta esku-hartzea.

Pertsonen zahartze prozesuetara aurre hartze, jardute eta esku-hartze.

Xede pertsonal laboralak eta ez laboralak lantzea.

Ordutegiaren egokitzea

Familia, ordezkari eta tokiko zerbitzuekin koordinaketa ekintzak egiteko.

Egokiplan, Zahartze aktiborako programa.

Tokiaren gordetzea.

Segimendua eta ibilbide pertsonalaren egokitzapen jarraitua

Pertsona bakoitzaren informazio garrantzitsuen gaurkotzea.

Profilaren gaurkotze eta segimendua, zereginak, trebakuntza eta laguntzak egokitzeko.

Txandakatzea eta postu-mugikortasuna beharrezkoa bada.

Prozesu eta zereginen hobekuntza.

Postuaren egokitzapen ergonomikoa, jangela, ordutegiak eta inguruneak.



zereginak erraztu edo banatzea, tresnen edo laguntza teknikoaren erabilera.

instalazioen antolaketa egokia, hesi arkitektonikoak ezabatzea...



Sartze ibilbidearen sustapena

Zerbitzu Okupazionalaren maila desberdinak.

Enplegu berezira pasatzea.

Enplegu arrunterako sarbidera laguntza.

Profilen metodoa.

Promozioko egiteko prozesura.

Profesionaltasun Agiriak

Sari ekonomikoa

Taularen arabera (9. orrialdea).

Eusko Jaurlaritzako Dekretua.

Sari ekonomikoa.

Istripu-asegurua

Doakoa, eguneko 24 ordu-tan, larunbatak, igandeak eta jaiegunak.

Dohako Istripu aseguruak.

<p>Borondatezko jangelako zerbitzua</p>	<p>Jantokia eta medikamentuak hartzea.</p>	<p>Sinaduraz baimendutako medikamentuak hartzeko eta dietak jarraitzeko gain begiratzea.</p> <p>Egokitutako menuak.</p>
<p>Arriskuen eta lan-osasunerako prebentzioa</p>	<p>Banakako eta taldeko trebakuntza ekintzak.</p>	<p>Banakako helburuak. Taldeko trebakuntza ekintzak.</p>
<p>Pertsona eta familiarekin informazio jarraitu eta parte-hartzailea</p>	<p>Barne komunikazioa.</p> <p>BLP-a itzultzeko elkarri-zketa pertsonal eta familiarak.</p> <p>Zentroko bilerak.</p> <p>Ate-irekidun jardunaldiak.</p>	<p>Iragarki-taula, aldizkariak, gutunak...</p> <p>Zentroko bilera orokorrak. Familia eta laguntzailearekin.</p>
<p>Kexa eta iradokizunetara arreta</p>	<p>Erabiltzailearentzako Arreta Unitatea.</p>	<p>Zentro guztietako formularioak</p> <p>Postaz bidalketa</p> <p>Posta elektronikoz bidalketa</p> <p>atencionalusuario@lantegibatuak.eus</p> <p>Telefonoz hitzordua 94 453 59 99</p>
<p>Zerbitzuen kalitatearen neurketa eta hobekuntza</p>	<p>Erabiltzaile eta familientzako kudeaketa sistema, metodologiak, praktika onak, poztasuna.</p>	<p>Pertsona jasotzailean eta laguntzaileen atsegintasun inkesta.</p>
<p>Erabiltzailearen parte-hartzea</p>	<p>Neurrira egindako laguntza Plana.</p>	<p>Elkarrizketak.</p> <p>Zentroko batzarrak.</p> <p>Sekzioko batzarrak.</p>
<p>Lantegi Batuak-eko profesionalen trebakuntza eta birziklatzea</p>	<p>Erabiltzaileenganako arretaren kalitatea hobetzea.</p>	<p>Urteko Prestakuntzarako plana.</p>

Antzeko zerbitzuekin koordinazioa

EHLABE-rekin (Euskal Herriko Lan Babestuaren Elkarte) eta beste komunitate batzuekin.

Ezagutzea, ikastea eta praktika onak ezartzea.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailarekin lankidetz

Bizkaiko Foru Aldundiaren gizarte zerbitzua da.

Hobekuntza proiektuak.
Zerbitzu Okupazionala planifikatu eta kudeatu.
Berrikuntza proiektuak.

Egokiplan

Zahartze aktiborako zerbitzua.

Zahartze aktiborako programa (kopuruaren arabera).

Eremu ezberdinetan egindako Zerbitzu Okupazionala.

Zentroetan egindako Zerbitzu Okupazionala.

Zentro industrialak

Eremu zabaletan egindako Zerbitzu Okupazionala.

Prestakuntza zentroak

Leku arruntak

Eremu zabalak



2

Nola funtzionatzen du?

ZERBITZU OKUPAZIONALETIK ATERATZEA

Zerbitzu Okupazionaletik baja edo tokia galtzea emango da hurrengo kasuetan:

— Erabiltzailea:

- Enplegua lortzen du kontratu batekin enplegu bereziko zentro batean edo enplegu arruntean.
- Borondatezko baja eskatzen du (zerbitzua bere borondatez uztea erabakitzen du).
- Bere ahalmen funtzionalen okertze larria edo patologia berriak sufritzen ditu eta ezin zaio egokitzapen edo laguntzarik eskaini zerbitzuan jarraitzeko.
- Tokian sartzeko beharrezko baldintzetako bat betetzeari uzten dio.
- Hartutako betebeharrak eta konpromisoak era larrian hausten ditu.



— Lantegi Batuak-eko profesional taldeak:

pertsona erabiltzailearen iraunkortasunak lanpostuan arrisku larri eta kontrolaezinak ekar ditzakeela balioesten du:

- erabiltzailentzat (ihesaren arriskua, autolesioak...)
- zerbitzu Okupazionalerako beste erabiltzaileentzat

3

Zure Eskubideak

DUINTASUNA



Erabiltzaile diren pertsonak beraien duintasuna errespetatua izateko eskubidea dute eta horregatik hurrengo modura tratatuak izatera:

- errespetuarekin, tratu txarrik jaso gabe (fisiko, psikiko, ekonomiko, soziala)
- modu pertsonalean, bakoitzaren beharrak eta interesak kontuan hartuta
- inolako diskriminazio motarik gabe (sexu, sexu-joera, adina, arraza, sineste edo ezgaitasuna edukitzeagatik)



PRIBATUTASUN ETA KONFIDENTZIALTASUNA



Erabiltzaile diren pertsonak beraien bizitza pribatua eta informazio pertsonala errespetatua izateko eskubidea dute.

- bere intimitatea gordeko da berari bakarrik eta inori gehiago ez dagozkion gaietan
- bere informazio pertsonalaren konfidentzialtasuna mantenduko da Lantegi Batuak-eko profesionalen aldetik (erabiltzailearen urritutako gaitasunen kasuetan izan ezik, beste pertsonen arriskuagatik edo legeak hala dioelako)
- datu pertsonalak, Legearen arabera tratatuko dira

Erabiltzaile den pertsonak ez badu informazio pertsonala kudeatzeko gaitasuna, bere familiako norbaitek edo kuradoreak, informatuak izan ondoren, eskubide honi dagozkion erabakiak hartuko dituzte.

3

Zure Eskubideak

AUTONOMIA



Erabiltzaile diren pertsonak bere bizitzarekin zerikusia duten gaiak bere kabuz kudeatzeko eskubidea dute.

Horretarako, gaitasun juridikoa gauzatzeko laguntzeko neurriak ezagutu behar dira.

Pertsonak hurrengo egin dezakete:

- berari eragiten dioten erabakiak hartu eta errespetatuak izan daitezela
- eragiten dionari buruzko informazio osoa eta ulertzeko erraza eduki
- bere garapen sozio-laborala oztopatzen ez duten jardueretan parte-hartzera ukatu
- pertsona laguntzaile bat izendatu, elkarrizketetara lagundu eta berari eragiten dioten erabakiak hartzeko
- zerbitzu Okupazionala utzi

Erabiltzaile den pertsona kuradorea dagoenean, erabakiak hartzerakoan bere legezko laguntzaileek lagunduko dute.



3

Zure Eskubideak

INFORMAZIOA



Erabiltzaile diren pertsonak eta bere laguntzaileek, Zerbitzu Okupazionalari buruzko informazio osoa eta ulertzeko erraza jasotzeko eskubidea dute, hurrengoari dagokionez:

- Eskaintzen dituen zerbitzuak
- tarifak eta lan-sariak eta bere irizpideak
- eskubide eta eginbeharrak
- gaitasun eta beharren balorazioaren emaitzak
- Lantegi Batuakeko langile arduradunen izen eta abizenak jakitea
- Zerbitzu Okupazionalarekin nola harremanetan jartzen jakitea
- Bereak diren agiriak eskatu eta jasotzea

LAGUNTZAK



Erabiltzaile diren pertsonak kalitatezko laguntza jasotzeko eskubidea dute, Zerbitzu Okupazionalan duten jardueraren barruan.

- Sartu baino lehen: balorazioa eta ebaluaketa osoa hilabete bateko epean
- Zerbitzura sartzean:
 - gaitasunetara egokitzen den toki bat libre gelditzen denean
 - balorazioa osatzeko ikuskapena, probaldian zehar.
 - probaldiaren lehenengo balorazioa, 3 hilabeteko epean.
 - Banakako Laguntza Plana 6 hilabeteko epean, tokia behin betiko finkatzen bada. Bi urtez behin berrikusiko da.



3

Zure Eskubideak

- Planaren jarraipena urtero.
- Erabiltzaile den pertsonaren bere zereginera egokitu edo garatzeko egoera hobetzen dituzten esku-hartzeak, bizi-kalitatea arriskuan jarri edo zailagoa egin dezaketen aldaketak aurkitzen direnenean.
- hobetze eta berrikuste jarraituaren baldintzak betetzen dituen kalitatezko zerbitzua (baliabide material, funtzional eta gizatiarra).

PARTAIDETZA ETA ESKUBIDEAK



Erabiltzaile diren pertsonak, beraiei eragiten dien antolaketa eta funtzionamenduari buruzko erabakiak hartzeko momentuan parte-hartzeko eskubidea dute.

- Bere beharren ebaluaketan eta banakako Laguntza Planaren egitean parte-hartuko du
- Kexa eta iradokizunak egiteko bideak erabili ditzake
- Bere konfiantzazko pertsona edo laguntzailearekin batera egon daiteke
- Bere eskubide guztiak bere gaitasunetara egokituta dauden era argi eta ulergarrian jakin ditzake



4

Zure Eginbeharrak

PROGRAMAREN BALDINTZAK



Erabiltzaile diren pertsonak elkarlan egin behar dute eta hitzartutako programak ondo joan daitezen onartu egin behar dituzte.

- Ezarritako egutegi eta ordutegiak beteko ditu. Zerbitzura joaten ez bada, jakinarazi egingo du ahal badu.
- Lanerako Zerbitzuan bere garapen pertsonalerako proposatutako jarduerak onartuko ditu.
- Desegokiak edo arriskutsuak diren jarrerai buruzko profesionalak aholkatutako jokaerak onartuko ditu.
- Zerbitzura joateko aldaketa posibleak eskatu egin behar dira (ordutegia, plaza mantentzea, ez etortzea...).

Eskaera ezeztatua izan daiteke, erabiltzaileari edo beste pertsonari eragiten badie. Zerbitzura askotan edo denbora luzean zehar joaten ez bazara tokia gal dezakezu.

- Betebeharrak ez betetzeak zentro edo zerbitzutik aldi baterako urruntzea ekar dezake.
- Zerbitzuren bat (jangela) jaso nahi ez denean, jakinarazi egin behar da.



4

Zure Eginbeharrak

SEGURTASUNA ETA OSASUNA



Erabiltzaile diren pertsonak, lanean bere eta beste pertsonen osasun eta segurtasunaren babeserako arauak bete behar dituzte, hurrengoak egin behar dutelarik:

- Bere osasunari buruzko benetako eta beharrezko informazioa eman, bere eta Zerbitzuko beste pertsoneri eragin dezaken bizi-kalitateari dagokionez (osasun-txartelaren kopia, medikuen txostenak, ebaluaketa behar duten gaixotasunak, medikazioa, elbarritasun ziurtagirian aldaketak, ezgaitasuna, tutoretza, helbidea, etab.)
- Garbiketa pertsonal egokia mantendu.
- Atsedean garaian zentrotik irteteko, eskaera ematea.
- Arrisku edo ezgaitasun kasutan, beharrezkoa bada Zerbitzura eramana izan daiteke.
- Beste pertsonentzako “arriskuzko” edo “gogaikarriak” diren gauzak ez eraman Zerbitzura edo profesionalen aholkuen arabera erabili.
- Bakoitzaren edo besteen osasunerako arrisku larriak daudenean, familiako edo dagokien pertsoneri bakoitzari buruzko informazioa emateko baimena eman.
- Jakinarazi jatekoan aldaketak badaude
- Jakinarazi jangelara ez bazoaz.



4

Zure Eginbeharrak

BESTE PERTSONEN DUINTASUNA



Erabiltzaile diren pertsonak Zerbitzuko gainontzeko pertsonak errespetatzeko beharra dute, bai erabiltzaile nahiz profesionalak:

- Jarrerari buruzko oinarrizko arauak errespetatuko ditu, elkarrekiko errespetua, ez diskriminatzea... gainontzeko pertsona erabiltzaileekin eta profesionalen aholkuekin.
- Ez ditu eraso-jarrerak (fisiko, hitzezkoak) erabiliko.
- Ez ditu beste pertsonetikiko gehiegikeriak (sexuala, lapurreta, etab.) egingo.
- Beste pertsonen duintasuna eta pribatutasuna errespetatzea teknologia berrien erabilpen maltzurra ekiditzen: gizarte sareak, argazkiak eta grabazioak egitea eta abar.



LAGUNTZAIEAK DIREN PERTSONENTZAT



Batez ere ezgaitasun handien kasuetan eta legeak esaten duen bezala, erabiltzaile den pertsonaren laguntzaileak diren pertsonak (kuradore, familiako pertsonak) programan berarekin elkarlan egingo dute eta hurrengoak bete behar dute:

- Erabiltzaile den pertsonaren jarraipen prozesua egiteko, Lantegi Batuak-eko profesionalarekin elkarrizketetara joan.
- Erabiltzaile den pertsonaren garapen sozio-laboralean eragin dezaketen gertakari garrantzitsuez profesional-taldea informatu.

4

Zure Eginbeharrak

- Erabiltzaile den pertsonak, eskutitz honetan adierazten diren eginbeharrak bete ditzan ardura hartu.
- Pertsona jasotzaileak betetzen ez dituen eginbeharrak laguntzea.

BALIABIDEEN ERABILERA



Erabiltzaile diren pertsonak Zerbitzu Okupazionalak eskaintzen dituen baliabide eta zerbitzuak era egokian erabili behar dituzte.

- Baldintzak beteko ditu eta beharrezko dokumentuak aurkeztuko ditu Zerbitzuan sartzeko.
- Instalazioak, makinak, lan-tresnak, etab. zainduko ditu eta profesionalen aholkuen arabera erabiliko ditu.
- Zerbitzu Okupazionalan zauden bitartean, entzuten, ikusten edo

jasotzen duzun informazioa isilpean gordeko duzu:

- Jarduera eta zereginei buruzko informazioa.
- Pertsonen buruzko informazioa.

